

## JOŠEPA TA BIŤORI

JOŠEPAK Zer zabilta Bittori.  
BIŤORIK Emenchen, sagardo billa.  
JOŠEPAK Ni ere mandatuketan nabill; nola jende asko datorren erriko festetara, gure amak naidu on egin datorren guziari.

BIŤORIK Gu ere ez gera gaizki izango, kanpotarrakin batian; gure echian ere prestatzen ari dira, gaur ikusiko ditut pazi zarrak eta denak garbitzen.

JOŠEPAK Gurian berriz kucha zarretik sagar panpandojak atera ta mayaren gañian jarriyak daude.

BIŤORIK ¡Au poza, Jošepacho! amona berriz esne arrosa egin ta egin ari da.

JOŠEPAK A zer jatia egingo degun, gure ausoko bizar kentzalliak ere leyuan jarriyak dauzka iru pertza bete betiak esne arrosakin.

BIŤORIK Orrenbeste zertarako dute.

JOŠEPAK Bada pentsatzen omen du jendiakin oso ondo egotiagatik, bestietan musuan aparra ematen duten bezela, oraiñ esne arrosakin igortzitzia gozoago ibilli ditezen.

BIŤORIK Ai gizona banitz.

JOŠEPAK Zertako.

BIŤORIK Mingañakiñ dena zupatzeko.

JOŠEPAK Ja jai... ta gero miñez gelditu.

BIŤORIK Jošepacho, obedegu echera abiyatu, birian estroposo egin gabe, ainbeste jende dabill.

JOŠEPAK ¡Bai jendia! nik ez nuben uste munduan orrenbeste gizon zanik; alde batera joan ta betia, elizan, trabenan, plazan, batzubek pipakiñ, bestiak soñeko ederrakiñ, non nai pilla, matz mordoak dirudite.

BIŤORIK Treatuan ere egin bear omen dute puntziyua; ara bai nik joan bear detala.

JOŠEPAK Ta treatuan zer puntziyo egiten da? zenbat oñeko saltuak egiten dituzte?

BIŤORIK Salto ez beztela ojuka ta irrintziyak.

JOŠEPAK Ta jira bueltak ere bai.

BIŤORIK Bai nozki.

JOŠEPAK Aufa, ori ederki, emen ere jendia naikua badago ešerita deskantsuan.

BIŤORIK Afaltzera etorriko ziran kalian ostaturik billatu ez ta...

JOŠEPAK Eta treatua zein echetan egiten dute?

BIŤORIK Ori ez dakit bañan galdetu obetako bati.

JOŠEPAK (*Jendiari*). Barkatu bezate bañan beotakoen batek erakutziko aldigu non dan puntziyo toki edo treatua.

BIŤORIK Erakusten badigute emango diyot nik botilla ontatik sagardo piška bat paperian bilduta bigalduko diyotet.

(*Barrendik ojuka*). Jošepacho, Bittori, mugituko altzerate?

(*Biyak*) ¡O! guri ojuka ari dira, guazen.

JOŠEPAK Ariyo jaunak, nola bai diguten deitu.

BIŤORIK Eche aldera bear degu abiyatu.

JOŠEPAK Ondo bizi guziyak.

BIŤORIK Asko dibertitu.

(*Biyak*) Gaizki esanik bada mezerez barkatu.

JOSÉ ARTOLA.